

## **KONTROL MOZIOA**

### **Bizikletentzako aparkaleku estaliak direla eta**

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko irailaren 16an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Aspaldi baieztatua dugu gero eta gehiago erabiltzen dela bizikleta gure hirian, datuek ere hala diote. Donostiako 2024-2029 hiri-mugikortasun jasangarriko planak ere horrela baieztatzen du, bertan irakurri baitugu 2013-2022 aldian bizikleten fluxua % 50 inguru areagotu dela.

Bestalde, 2024-2029 hiri-mugikortasun jasangarriko planaren helburua ere bada modu aktiboak lehenestea motordun pribatuen gainetik eta horretarako hainbat ekintza proposatzen ditu. Horien artean bizikleten aparkalekuen sarea osatzea eta aparkaleku estalien sarea handitzea.

Oraingoz, Donostian dauden bizikletentzako aparkaleku seguru eta estaliak gutxi dira: autobus geltokian, Pio XII.aren plazan eta Loiolako igarobidean.

Bestalde, 2021ean Ekialdeko Barrutiak ekialdean bertan egiteko proiektuak adostu zituen. Proiektu horien artean, "Bizikletak uzteko estalpea Txaparrenen" izenekoak ageri zen eta zehazki proiektu horrentzako 20.000 euroko aurrekontua aurreikusi zen.

Horri guztiari buruz galdetu genuen batzordean eta hainbat izan ziren jaso genituen erantzunak, baina ez eperik ez baieztapen finkorik.

Alde batetik jakin genuen, bere garaian, 200.000 euro zeudela bideratuta hirian hainbat aparkaleku estali eta seguru egiteko, baina Covida zela eta, bestelako lehentasunengatik, plegu hori bertan behera geratu zela.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Bestetik, Txaparrenerako 20.000 euro gordeta daudela. Hori bai, diru horrekin plegua edo kontratu txikia egitean dago gakoa . Baina, berez, egiteko asmoa dagoela eta zer egin daitekeen ere begirutzen hasi dela Mugikortasun Saila. Baina, beste behin ere, proiektu hori egiteko eperik ez genuen jaso.

Azkenik, jakin genuen Udalak, beste erakunde batzuekin egindako hitzarmenen bidez, bizikletentzako aparkalekuak egingo zituela. Hala nola, ETSrekin batera, autobus geltokikoa martxan jartzea berriro, Osakidetzarekin ospitaleetan aparkaleku bat jartzea, Benta Berrin edo lur azpiko aparkalekuetan.

Badirudi Udala bide onean doala aparkaleku seguruekin, baina gure kezka da benetan gauzatuko ote diren eta hitzarmenaz gain, bestelako aparkaleku seguru eta estaliak egingo ote diren auzoetan.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Txaparrenerako bizikletentzako aparkaleku estalien proiektuaren esleipena enkargatu dezala 2025ean zehar.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako hainbat auzotan bizikletentzako aparkaleku estali eta seguruak egiteko plangintza egin dezala 2025ean.

Donostian, 2024ko irailaren 19an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia